

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak %30 gehitu du Turismorako jarritako aurrekontua, eta proiektu estrategiko bat abian jarri du

*Barkos Lehendakariak FITURREN nabarmendu du kultura aldetik adimentsua eta iraunkorra, irekia eta inklusiboa den lurraldearen aldeko apustua*

Ostirala, 2017.eko urtarrilak 20

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, Nafarroak FITURREN goizean egindako ekitaldi instituzionalean nabarmendu du Foru Erkidegoak iaiztik %30 gehitu duela Turismorako jarritako aurrekontua, eta proiektu estrategiko bat abian jarri duela, Nafarroako ekonomian eta gizartean duen tarte eta garrantzia estrategikoa ematen diona, proiektu parte-hartzailea eta orekatua, esandakoaren arabera, etorkizunera begira urratsak markatuko dituen.



Barkos Lehendakaria ekitaldian bertaratutakoei azalpenak ematen.

"Baina, eta batez ere, benetan harro gaude Nafarroako turismoak bere lekua hartu duelako Erkidegoaren egitura eta estrategia ekonomiko eta sozialaren barnean", esan du Barkos Lehendakariak. S3-n duen espazioa eta protagonismoa azpimarratu nahi izan ditu, Nafarroako Estrategia Adimentsua, Nafarroako sektore giltzarriak jasotzen dituen plana. "Eta hori egingo du –gehitu du- turismoak hazteko gaitasuna duelako eta errentagarritasun ekonomikoa eta soziala eskaintzen dituelako".

Jarraian, Lehendakariak turismoaren zeharkako jardueraren izaera azpimarratu du. "Ekonomia eta enplegua da, ondarea, gizartea eta kultura. Eta, aldagai horiek guztiak jokoan jartzen dituenek, Nafarroa kanpora proiektatzen laguntzen digu. Baita pentsatzen ere. Modu horretan, hausnarketa kolektibo eta estrategiko horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak etorkizuneko lurraldearen eredia zutik jartzeko egiten duen apustua adierazten eta islatzen du, ziurrenik sektore gutxi batzuek bezala, gazteak oinarri hartuta eta dikotomia faltsuak gainditzeko gaitasunarekin, globala edo tokikoa, beltza edo zuria edo teknologikoa edo gizatiarra edo apokaliptikoa edo integratua esaten diguten horiek, hain zuzen".

"Dikotomia horiek barnean hartzen eta gainditzen dituen lurralde-ereduaren aldeko apustua egiten dugu guk", ziurtatu du Uxue Barkosek,

"Kultura aldetik, adimentsua eta iraunkorra den Lurraldea deituriko Nafarroaren aldeko apustua. Lurralde irekia, inklusiboa, landa eta hiri arteko orekarekin, nafarra izatearen modu ezberdinak errespetatuaz. Zentzu zabalean ulertuta, prestakuntza teknologikoa zein gizatiarra oso baliagarriak dituena. Halaber, lehiakortasuna bultzatuko da sormen-inguruneetan. Globala eta tokikoa ez dira bateraezinak izango, eta, azkenik, Nafarroako gizarte osoa iraunkortasunaren, ingurumenaren, kulturaren eta gizartearen gainean sentsibilizatzearen aldeko apustua burutuko da. Belaunaldien arteko ituna, gazteengan eta etorkizuneari pentsatuaz. Egoera horretan, turismoak eta Nafarroak asko dute esateko. Eta ze hobeto gai hau jorrazteko FITURREN edizio hau baino; izan ere, turismo iraunkorraren aldeko apustua egiten du; hain zuzen ere, Turismo Iraunkorraren Urtea izango den urte honetan".

Ondoren, Lehendakariak stand-aren gaia aipatu du: "Nafarroa eratzen duten bideak; Nafarroa ezagutzeko hamaika modu". "Iparretik hegora eta ekialdetik mendebaldera –esan du-, Nafarroa natura, kultura eta historia da. Batuketa horri esker, Foru Erkidegoa lurralde aproposa da ibilbideak, bideak eta bidezidorrak egiteko, tartean Donejakuerako Bidea protagonista handia izanik. Dakizuen moduan, Nafarroan frantsesa eta aragoiera batzen dira. Horrez gain, Mendi-ibilien Sarea dugu; hau da, erkidegoko altxor natural guztiak jasotzen dituzten ia 230 kilometro, basoak, ur-jauziak, ibaiko paseoak edo igoerak, gailurrak, hegaztiak behatzeko aukera, formazio geologikoa, mitologia, trikuharriak".



Nafarroako pabiloiaren ikuspegia ekitaldi instituzionalean

Uxue Barkosek, halaber, ondorengo nabarmendu du: "landa-bideak, bide berdeak, Erriberako paisaia historikoak, edo Ederbidea eta Eurovelo bezalako proiektu berriak, Europako hainbat herrialdek mugikortasun iraunkorraren alde egindako proiektua, Inaziotar Bidea. Baliabide horiek ezinbesteko hitzorduak dira erromes, ibiltari eta txirrindularientzat". "Ibiltzea edo lurralde bat bizikletan egitea ez da berrikeretako gauza –esan du-. Kirola da, baina, aldi berean, askoz ere gehiago da. Gizarte garaikidearen zorigaitzentzat "antidotorik" onenatarikoa da. Bideak sokak bezala dira, gure geografia eta gure kultura kolektiboki ehuntzeko eta egituratzeko lotzen direnak; gainera, geure burua eta besteak deskubritzen eta aurkitzen laguntzen digute".

Azkenik, Barkos Lehendakariak azpimarratu nahi izan du Juan Mari Feliú, Carlos Aurensanz edo Gloria Gaztelu bezalako pertsonen erreferentzia; "gure paisaiak, gure historia, gure jendeak, batzuetan kosta ahala kosta, begiratzeko eta ulertzeko eta bisitatzeko gaituztenak hartzeko moduaren zaindaria arduratsuen eta eskuzabalen belaunaldiak eta belaunaldiak ordezkatzeko dituzte. Aurten, ospatu egiten dugu eta saritzen ditugu. Halaber, aberastasun horri eusteko eta etorkizuneko bide berri horiek sortzeko konpromisoa hartzen dugu".

### **Beste esku-hartze batzuk**

Ekitaldi instituzionalean zehar, Garapen Ekonomikoko lehendakariordea den Manu Ayerdik ere esku hartu du, Nafarroa egiten duten bideak, ondare-legatu bezala ulertuta, urte askotan zaindu dituzten elkarteetan, taldeen eta pertsonen ordezkariekin batera.

Modu horretan, Tuterako Carlos Aurensanz idazleak Erriberako paisaia historikoak aipatu ditu, Juan M<sup>a</sup> Feliúk Nafarroa bidexken bitartez nola ezagutu azaldu du, eta Done Jakue Bideko Garesko Lagunen Elkarteko kideak, Gloria Gazteluk, ibilbide horrek Foru Erkidegoko arterako, kulturarako eta ondare historikorako duen garrantziaz hitz egin du.

Ekitaldia amaitzeko, "Camino, cruces, cuerdas y nudos" dantza, musika eta poesia ikuskizuna izan dugu, Helena Lizari eta Laida Aldaz dantzarien eskutik. Silvia Munárrizek eta Mikel Casanellasek txalaparta

jota, bideek lurralde bat eratzeko eta lurralde hori ezagutzea errazteko duten garrantzia antzeztu dute.

Azkenik, Cadreitako Marisol Jatetxeak Nafarroako gastronomiako honako hauek bezalako osagaiekin egindako pintxoak eskaini ditu; besteak beste, zainzuriak, Erronkariko eta Idiazabalgo gaztak, olioak, ziazerbak, borrajak, potxak, pikillo piperrak, txistorra, odolkia, txekorra eta arkumea.

## **2016, urte ona**

2016. urteak balantze ona utzi du Nafarroako turismoarentzat. Azarora bitarte bildutako eta Garapen Ekonomikorako Departamentuak jasotako datuen arabera, urtetik urterako aldaketa positiboa izan da bidaiarien kopuruari dagokionean (1.319.106 lagun, 2015eko denboraldi berean baino %8,2 gehiago) nahiz igarotako gau-kopuruari dagokionean (2.800.425 gau, %9,9 gehiago).

Hilabeteko batez besteko egonaldia, urrira bitarte, 2,12 egunekoa izan da turista bakoitzeko, 2015 ean baino %1,5 gehiago. Ostatu-motari erreparatuta, nabarmen gehitu da hoteletako (%11 gehiago), apartamentuetako (%11,2), landa-etxeetako (%6,8) eta aterpetxeetako (%0,3) okupazioa. Kanpinetan, aldiz, okupazioa %17,3 jaitsi da, okupazioa partzelaka hartuta, baina plazak kontuan hartzen baditugu, %8,3ko igoera izan da.

Turisten jatorriari dagokionez, estatuko nahiz nazioarteko bidaiariak gehituz joan dira, %8,1 eta %8,4, hurrenez hurren. Estatuko %15,63 Madrilgoak izan dira, %14,35 euskaldunak, %11,29 kataluniarrak eta %7,58 nafarrak. Bestalde, atzerritar turistak bidaiarien laurdena baino gehiago izatera iritsi dira; zehazki, %27,5. Ildo horretan, erromesei dagokienez, %70 baino gehiago atzerritarrak dira, 2015ean baino %7,8 gehiago.

Azkenik, enplegua aintzat hartuta, sektore turistikoan aurreko urtean baino lanpostu gehiago sortu dira. Modu horretan, ostatu-zerbitzuetan, janari eta edari zerbitzuetan eta bidaiaria-agentzietan eta Nafarroako operadore turistikoetan, azarora bitarte hileko batez beste 17.155 pertsona egon dira Gizarte Segurantzaren alta emanda, aurreko urteko batez bestekoa baino %5,9 gehiago.


## **Nafarroako stand-a FITURREN**

Nafarroako stand-a (9C13) 500 metro karratukoa da, eta Foru Erkidegoak bisitariei eskaintzen dizkien bide ezberdinak ditu protagonista: Done Jakue Bidea, Inaziotar Bidea, bide berdeak, ibilbide handiak, e.a. Stand-a diseinatzeko eta muntatzeko lana Eventos Zunzarren enpresari esleitu zitzaion 159.879 euroren truke (BEZ barne). Stand-a Foru Gobernuak 2017an parte hartuko duen honako azoka hauetarako ere erabili ahal izango da: Iruñeko Navartur, Lyon-go Mahana aretoa (Frantzia), Bartzelonako B-Travel Turismo Aretoa edo Bilboko Expovacaciones.

Bisitariak, irudi deigarrien eta bide ezberdinen bitartez, Nafarroako geografiako txoko ezberdinetara eramaten dira, historia, tradizio, kultura, jai eta aberastasun monumental, natural eta gastronomikoan barrena gidatzearekin batera. Urbasako pagoen basoa, Iñaki Tejerina argazkilariarena; Galipentzuko bat-batekoa, Patxi Urizena; Orhi Gailurra jaisten ikusten den irudia, Javier Camposena; Iruñeko erraldoiak, Mikel Goñirena; eta, Torres del Ríoko Hilobi Santua, Javier Camposena. Horiek guztiak Nafarroak paisaia aldetik duen barietatea erakusten dute, Nafarroa eratzen duten bide guztiak eginez aurkitu daitezkeen guztiaren pintzelkada moduan.

Stand-aren egiturari dagokionean, bi gune ditu bereiztuta: alde batetik, publikoari informazioa emateko eta aurkezpenak egiteko gunea (aurten, lehen aldiz, arreta orokorreko zonan egiten dira); eta, bestetik, gune pribatua, laneko bilerak egiteko eta dastatzeetarako eremuarekin, sektore turistikoak bere gonbidatuekin lan egiteko.

## **Galería de fotos**



Barkos Lehendakaria stand-an.



Turismoko zuzendari nagusia, Maitena Ezkutari, Lehendakaria eta Manu Ayerdi



Juan Mari Feliú hitzaldia ematen Fiturren.